

# Galtzaraundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

12/10/19 | 371

🌀	Begoña Aristi eta Cristina Perez
🌀	Herriko hizkuntza aniztasunaren erakusleioa
🌀	Ikasleen txokoa: Gaztetxea/lokala
🌀	Koxk!: Nire haurrak ez du jan nahi!
🌀	Laskorain Ikastola KMK 2013ri begira



Hauteskundeak 2012  
Eusko  
Legebiltzarra



**elikadura eta dietetika aholkularitza**  
Ondo jateak zure bizi kalitatea hobetzen du.

**Cristina  
Pérez Garay**

M. 667 397 019  
cpgnutricion@gmail.com

Tolosa - Ordizia - Urretxu



**aldama\_tapia**  
aholkularitza

Foruen Etorbidea\_7  
20400\_TOLOSA Gipuzkoa  
Tel\_943 650 375  
Faxa\_943 655 206  
**gtolosa@aldamatapia.com**  
**www.aldamatapia.com**

**SUPER EKO**  
SUPERMERTATUA

*Oinezkoen eremua  
Erosketak etxera  
eramateko zerbitzua*



Zumalakarregi, 4  
943 65 09 01  
Tolosa

1.000 modelotik gora

**mō**  
graduatuak  
kristalak barne  
**57€**

San Frantzisko, 23 • Tel. 943 69 84 70 • TOLOSA

**MULTIÓPTICAS**  
lehen a zerbitzu optikoetan



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.  
Helbidea: Nafarroa etorbidea,  
6-behea.  
20400 Tolosa (Gipuzkoa)  
Telefona: 943 655 004  
Faxa: 943 654 983  
e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com  
Webgunea: www.galtzaundi.com  
Kordinazioa: Naiara Roldán de Aránguiz.  
Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Igor Mujika

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegietxarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Manex Izagirre, Ibon Artola, Unai Igartua, May Gorostiaga, Artubi elkarrea, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxipia, Ione Gorostarzu, Josu Iztueta, Txarli Gesteira, Aritz Larreta, Begoña Aristi eta Zigor Agirrezabala

Publizitatea: Amaia Doyague  
Banatzaileak: Olatz Garmendia  
Juankar Arregi  
Zuzentzailea: Nora Olano  
Maketazioa: Galtzaundi  
Diseinua: Zigor Agirrezabala  
GOTIK  
Azala: Galtzaundi  
Inprimategia: Antza.  
Tirada: 4.500 ale  
Lege gordailua: SS-906/91  
Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri haueko denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Alto, Amezketak, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



**kutxa gizarte ekintza**

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jasotako da.

Galtzaundin azalduko iragarleek diruz lagundu dute argitalpena.



## Erreportaia: Hauteskundeak 2012: Eusko Legebiltzarra

Galtzaundik izaera ezberdineko lau iritzi emaleei hiru galdera luzatu dizkie urriaren 21ean ospatuko diren hauteskundeetarako buruz. Eider Olazarrek, Joxe Agustin Arrietak, Garbiñe Biurrunek eta Antton Izagirrek hauteskunde kanpainaren azterketa egin dute.

8-11. orrialdeak

Zero Zabor Tolosako taldeak gaur egun Gipuzkoan denon ahotan dagoen zaborraren eztabaidaren muinari heldu dio eta herritarrek ingurunea babesteko eragile izateko apustu egin du.

Elkarriketa: Tolosa Zero Zabor

14-17 orrialdeak

	Iritziaren leihoa: Begoña Aristi eta Cristina Perez	4-5
	Normalizazioa: Herriko hizkuntza aniztasunaren erakusleihoa	6
	Ikasleen txokoa: Gaztetxea/lokala	12
	Koxkl: Nire haurrak ez du jan nahi!	13
	Laskorain Ikastola KMK 2013ri begira	18-19

## Ez gara txanogorritxo



Begoña Aristi  
EHNE

Herritarrak, hiritarrak, baserritarrak, langileak, beharginak... gara. Etxetik kalera irten gara lan bila, txanogorritxo amonaren etxera hura zaintzera joan zenean bezala. Oihanean sartu gara pozik eta bidean hamaika oztopo topatu ditugun arren, aurrera jarraitu dugu, baina bide gurutzean bihotz oneko gizon bat topatu dugu: "Har ezazue beste bide hau, lehenago topatuko duzue lana-eta!". A ze poza! Gizonak esandako bideari heldu diogu.

Herritarrak, hiritarrak, baserritarrak, langileak, beharginak... gara. Etxetik kalera irten gara lan bila, txanogorritxo amonaren etxera hura zaintzera joan zenean bezala. Oihanean sartu gara pozik eta bi-

dean hamaika oztopo topatu ditugun arren, aurrera jarraitu dugu, baina bide gurutzean bihotz oneko gizon bat topatu dugu: "Har ezazue beste bide hau, lehenago topatuko duzue lana-eta!". A ze poza! Gizonak esandako bideari heldu diogu.

Iritsi gara lantegira eta nagusiarekin elkartu gara. "Zein bulego ederra duzun!", esan diogu nagusiari, "Zuei harre-ra hobeto egiteko", erantzun digu. "Zein soldata handia duzun!", bulegoko oparotasunak harritu baikaitu. "Bai zuek baino gehiago naizelako", esan digu. Ingurura begiratu eta "a ze lantegi handia duzun!", bota diogu. "Bai, zuek bezalako langileez aprobetxatzen naizelako!", ihardetsi digu.

Beldurtu egin gara, baina nagusiaren lan baldintzak entzuteko nahikoa indar izan dugu. Esku bat jan digu... belarriak... begiak, baina hankak jaten hasi aurretik korrika joan gara gainerako langileen bila. Behargin guztiak elkartu gara nagusiak harrapatu aurretik. Taldearen indarra erabiliz nagusia izutu dugu eta ez gabela bere esklabutzan eroriko oihukatu diogu. Lantegia denon artean gure egin dugu, gehiago garelako eta gure ahalegina probestuz aberasten delako.

Ez gara txanogorritxo. Ez diogu otsoari beldurrik. Langileak gara eta herri honen aberastasuna guk sortzen dugu. Nagusiek bakarrik ezin dute aberastasunik sortu, politikariak ere ez dira inor gu gabe, ezta bankuak ere. Gu gehiago gara eta ez gara txanogorritxo! ©

## Tratamendu dietetiko-nutrizionalak pertsonalizatuak izan behar dira beti



Cristina Perez  
Nutrizionista

Gero eta ikerketa zientifiko gehiagotan azaltzen da bizimoduak osasunean duen eragina. Elikagai ohiturak, esate baterako, eragin handia dauka gizakion osasunean.

Geroz eta gehiago, presak, estresak eta kontsumo ohiturak direla eta, jendeak ezin dio elikadurari nahi beste erreparatu, gainera konpromiso sozialek (oporrak, koadrilako afariak, urtebetetzeak, lagunekin irteerak...) ez dute asko laguntzen, dena mahai inguruan ospatu egiten baita.

Ohitura aldaketa hauekin batera, gizartearen desoreka nutrizionalak ere gora egin du. Diabetesa, kolesterola, azido urikoa, giltzurruneko gaixotasunak, obesitatea, zorritzarrez geroz eta ezagunagoak dira guztiontzat.

Baina arazo horiek ez dira egun batetik bestera etortzen, oso ohikoa da gutxika kiloak gehitzea; uda eta gero bi kilo gehiago oporretan egindako gehiegikeriengatik, eta bi kilo horiei soberan zeunden beste bi gehitzea, gainera ondoren Gabonetan beste bi hartzen badira, hasierako bi kilotxo horiek gehiegizko pisuan edo obesitatean bihurtzen dira, hori ekiditeko prebentzioa da onena.

Heziketa nutrizionala eta dietetikoak ezinbestekoa da. Tratamendua baliagarria izan behar da beti. Horretarako bi faktore ezberdin aztertu behar dira:

Alde batetik, elikaduraren bitartez bakoitzak lortu behar dituen energia eta mantenugaiak, izan behar dira kontuan, hau da, egoera nutrizionala. Horiek neurri korporalaren arabera, akti-

bitate fisikoaren arabera eta bizitzaren epearen arabera daude, (gaixotasunaren bat izanez gero ere kontuan izan beharko genuke).

Bestetik, oso ondo aztertu behar da pertsona bakoitzaren egoera dietetikoak, inkesta batzuen bitartez norberaren elikadura mota eta jokabideak ere aztertu behar dira (egoera sozialak, ekonomikoak, joerak geografikoak, klimatologikoak, kulturalak, eta abar).

Beraz, jakin behar da, dieta pertsonalizatuak ez dela gure pertsona dietaren alboan egotea soilik, baizik eta bakoitzaren zailtasunak ondo aztertzen

dituen, eta konponbidea biltzen duen tratamendu baten barruan dagoen heziketa bat.

Askotan pasatzen den moduan, dieta miragarriak eskaintzen direnean, kilo asko denbora gutxian galtzeko, arazoak ez konponduaz gain, ohitura dietetiko txarrak eta desoreka nutrizionalak sortzen dira.

Dieta orekatu baten segimenduarekin lortu behar dena, ohitura osasuntsua jasatea da, horrek pisua jaisten lagunduko digu, baina gainera osasuna irabaziko dugu, eta orokorrean bizi kalitate hobea izango dugu. ©





# Herriko hizkuntza aniztasunaren erakusleihoa



Baserriko produktu naturalak  
Mahala baserria • LEABURU  
Tel.: 943 673 499



Osagaiak  
Desarrolloak  
Instalakuntzak  
GUDARI KALEA 15-BEHEA TEL.: 943 650 199  
TOLOSA (GIPUZKOA) FAXA: 943 653 916

Galtzaundi Euskara Taldeak informazio kanpaina abiatu berri du Tolosaldeko hizkuntza aniztasuna gizarteratu asmoz, euskara kohesio hizkuntza dela azpimarratuz. Kanpainari hasiera emateko Tolosaldean bizi eta atzerritar jatorria duten norbanakoen laguntza izan du euskara taldeak.

Erredakzioa

Herriko hizkuntza aniztasunaren erakusleihoa kanpaina Tolosa (Triangulo plaza, Zumalakarregi kalea eta San Frantzisko pasealekua) eta Ibarra (Euskal Herria kalea eta Herriko plaza) hedatuko da hainbat hilabetetan zehar; bertako biztanleengan kontzientziarazioa eragiteko.

Lehenengo pausoa herriar hitz egiten den hizkuntza bakoitza -60 hizkuntza baino gehiago- jatorrizko hizkuntza zein euskaraz kartelen bitartez herriar barrena xertatzea izan da. Lan honetan, protagonistak atzerritar jatorria izan, hizkuntza horiek hitz egin eta Tolosaldean bizi

diren norbanakoak izan dira.

Hector, Ekuadorrekoa izan eta Tolosan bizi den herritarra da. Galtzaundiren deialdira gerturatu eta hizkuntzei buruz mintzatzeko gunea izan du. Berak gaztelania, frantseza, eta kitxua ezagutzen ditu. Tolosako Triangulo plazara egindako deialdian kitxua izena duen kartela zintzilikatzeko ardura izan du, bere jatorriaren ordezkari gisa. Euskara ez da erabat arrotza Hectorrentzat, izan ere, lehen hastapenak egiten dabil Banaiz Bagara Elkartearekin batera. Hectorren ustetan euskarara gerturatzea "beharrezkoa eta garrantzitsua" da, "bertako jendearekin komunikatu ahal izateko".

Abdelillah-en adibidea antzekoa da. Bera Marokon jaio eta Villabonan bizi da. Banaiz Bagara Elkartearen bitartez euskara ikasten hasi da Tolosako Kultur Etxean. Galtzaundiren galderei euskaraz irribarrez erantzun eman die; berak argi dauka euskara bertako kultura ezagutzeko tresna dela eta euskara ikasten hizkuntza bera gustuko duelako eta Euskal Herria gustatzen zaiolako hasi da.

Petra Elser Banaiz Bagara Elkarteko gidaria da, alema-

niar jatorria izan, euskara ikasi eta gaur egun atzerritar jatorri dutenei euskara irakasten dihardu Tolosan, besteak beste. Hizkuntza aniztasunaren gizarteratzearekin bat dator Petra: "ondo iruditzen zait. Jendea pentsatzen jartzeko aukera ematen du, curiositatea pizten da". Hizkuntzak Petrarentzat ardura-gaia dira; Euskal Herrian bizi eta euskara ezagutzea ordea ezinbestekoa da berarentzat: "beste herrialde batetik etorri eta euskara ikasteari garrantzi zentrala ematen diot. Euskal gizartearen proiektu komuna euskaraz berriro jabetzea, gizartearen hizkuntza komuna edo kohesio-hizkuntza izatea da. Horretan, beste lekuetatik etortzen diren pertsonak parte izateko oinarritzkoa da hizkuntza horiek ikastea edo jakitea".

Datozen asteotan beraz, Tolosaldeko herritarrek egiteko berria izango dute, kaleetan barrena zintzilik ageriko diren txartelei erreparatu eta zabalduko den informazioa jasotzeko adi egotea. Las Korain, Hirukide, Orixe eta Uzturpe ikastetxeek ere hizkuntzen inguruko zenbait galderei erantzuteko egin beharra izango dute.

## Galtzaundiko Gabonetako loteria salgai

Dagoeneko salgai dago Galtzaundi Euskara Taldearen Gabonetako loteria. 11238 da aurtengoan Galtzaundik aukeratutako zenbakia abenduaren 22ko zozketan parte hartzeko. Txartelak 2 euroren truke salgai daude. Txartel bakoitzaren jabeak 1,5 euro

jokatuko ditu eta 0,5 euroko laguntza eskainiko dio Galtzaundi Euskara Taldeari. Txartelak salgai daude Galtzaundiko egoitzan (Nafarroa etorbidea, 6 behea) eta eskualdeko ohiko denda, taberna eta jatetxeetan.

## Bypass pelikularako sarreraren zozketa

Donostiako Zinemaldian Patxo Telleriak eta Aitor Mazok zuzendutako Bypass filmak oso harrera ona izan zuen, publiko artean barreak eraginez. Galtzaundik

bere bazkideen artean komedia erromantiko hau ikusteko sarrerak (bazkide bakoitzeko bi sarrera) zozketatuko ditu. Bypass pelikulan parte hartzen duen euskal aktoreetako baten izena eman beharko da zozketan parte hartzeko. Sarrerak Galtzaundiko egoitzan jasoko dira eta erantzunak erredakzioa@galtzaundi.com, 943 655004 edo Nafarroa etorbidea, 6ko egoitzan eman daitezke.



Karga eta goi lanetarako grua  
www.igogrua.com  
Mobil zkia. 670 67 24 62



enpresa katalogoak  
aldizkariak  
logotipoak  
liburuak  
publizitate komertziala  
kartelak  
egutegiak  
bannerrak

**antza**  
komunikazio grafikoa

Zirkuitu Ibilbidea, 2 / 2. pabiloia · 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 370 738 / Faxa: 943 372 226 · info@antza.com · www.antza.com

**Arteka**  
ESKULANAK  
Nafarroa etorbidea, 10  
TOLOSA  
Tel.: 943 655 577



Arostegieta kalea, 2 - Tolosa

# Eusko Legebiltzarrak 2012

Galtzaundik izaera ezberdineko lau iritzi emaleei hiru galdera luzatu dizkie urriaren 21ean ospatuko diren hauteskundera buruz. Eider Olazarrek, Joxe Agustin Arrietak, Garbiñe Biurrunek eta Antton Izagirrek hauteskunde kanpainaren azterketa egin dute.

1. Zer interesarekin begiratzen diezu urriaren 21ean ospatuko diren Eusko Legebiltzarrerako hauteskundera? Bozka emateko edo ez emateko garaian zer izaten duzu kontuan?
2. Euskararen erabilpena hauteskunde kanpainaren baitan zer egoeratan ikusi duzu? Eta alderdi ezberdinen politika programei erreparatuta euskararen normalizazioak zer nolako presentzia dauka? Proposamen berririk gaineratuko zenuke?
3. Zer espero eta eskatuko zenuke urriaren 22tik aurrera?

8



Eider Olazar  
Tolosaldeko Bilgune Feminista

## 1.

Interes handiarekin begiratzen diet. Kontuan hartuta, apartheid garaia gaitzuta sentsibilitate politiko orok bere ordezkaritza izateko aukera duela oraingoan, nahiz eta oraindik orain, politikan normaltasunez aritzeko aukera ez izan denek (ordezkari politiko espertxeratuak, auziperatuak...). Edozein kasutan, nire botoak dagokion balioa izango du oraingoan eta horregatik, ezinbestekoa iruditzen zait bozka ematea egoera honetara ekarri gai-

tuen oinarrietan sakontzen joateko, alegia, normalizazio politikoan sakontzeko. Esan gabe doa, herritarren parte hartzea ezin dela lau urtez behin bozka ematera mugatu, parte hartzeak askoz ere dinamikoagoa izan behar duela eta horretarako, aukerak eman behar direla instituzioetatik eta aldi berean parte hartzearen kultura zabaldu herritarren artean.

## 2.

Hautagai batzuei dagokienean (PP, PSE) oso sinbolikoa ikusten ari naiz. Behartua dela esan liteke, eta hori zentzu batean positibotzat jotzen dut, euren burua euskaraz egitera behartuta ikusi dutelako baina noski, ez da nahikoa. Urriaren 21etik aurrerako jardunean ikusi behar da euskararekiko konpromisoa. Zentzu horretan, ni EH Biltzurekin erabat identifikatuta sentitzen naiz. Euskararen ofizialtasuna Euskal Herri osoan giltzarria dela iruditzen zait, juridikoki dagokion estatusa

eta beraz, babesa izan dezan. Hitzunei dagokienean, euskara jakitea ezinbestekoa da eta hori bermatu beharko luke hezkuntzak. Baina jakitea bakarrik ez da nahikoa, erabiltzen ez den hizkuntza hil egiten baita. Horretarako, euskal hiztunek eroso sentitu behar dute beren hizkuntzan ari direnean eta erabiltzen ez dutenak euskaraz egitera animatu. Lan horretan administrazioak eredu garri izan beharko luke eta euskarazko komunikazio esparruak hobetu. Azkenik, hedabideek ere lan handia dutela egiteko uste dut, zer esanik ez euskal irratia eta telebista publikoak, EITBk. Euskarazko kalitatezko edukiak sortzea ezinbestekoa da euskararen normalizaziorako bidean.

## 3.

Nik norabide aldaketa bat eskatuko nuke. Gehien gehienok nazkatuta gaude hain orokortua dagoen politika egiteko eraz, egunerokoan gure izerdiaz eraikitzen du-

gun ekonomia gutxi batzuk kudeatzeko duten era lotsagabeaz eta oinarrian gure inguruan zabaldu den mundua ikusteko eraz (harreman ereduak, natur baliabideak ustiatzeko moduak, aberastasunaren banaketa...). Mugetaraino iritsi gara eta honek guztiak norabide aldaketa bat behar duela uste dut. Horretarako hoberena erabaki ahalik eta gertuen hartzea dela derizot, eta herri bat garen heinean gure etorkizuna guk erabaki ahal izatea. Urriaren 22tik aurrera pertsona burujabe osatutako herri burujabe baten aldeko pausoak ematea espero dut.



Antton Izagirre  
Irakaslea

## 1.

Urriaren 21ean Euskal Komunitate Autonomoan Euskal Legebiltzarrerako egingo diren hauteskundeak garrantzi berezia hartu dute testuinguru politiko, sozial eta ekonomiko berezian egingo direlako.

Batetik, juxtu urtebete beteko da ETA erakundeak behin betiko armak utzi eta gatazka armatuaren konponbiderako proposamena mahai gainean jarri zuenetik. Abagune honetan hautes-

kundeak deitu izanak aro politiko berri bati hasiera emateko aukerak eskaintzen dituenaren ustea eta gogoia oso hedatua dago euskal herritarren artean. Soilik bide politiko eta demokratikoen bidez Euskal Herriak burujabetza eta aspirazio politiko guztiak ase ditzakeenaren ideia sendo errotu da gehiengo sozial eta politikorengan. Zentzu honetan indartu da gehiengo abertzaleak Legebiltzarrerako erabakien bidez Euskal Herriaren etorkizuna baldintzatzeko izan dezakeen gogoia eta borondatea.

Bestetik, Ezker Abertzaleak normaltasunez parte hartze izan duen aukera erreala, boto abertzalea aktibatu egin du eta horren ondorioz orain arteko Legebiltzarraren eta Eusko Jaurlaritzaren konposaketa irauli egingo du. Hauteskunde hauek duen handi batean Euskal Herriaren independentziaren aldeko indarrak alternatiba erreala bilakatuko dira. Honetan,

Katalunian ematen ari den eraldaketaren atzetik edo batera, Estatu Espainiarrarekin konfrontazio politikorako aukera bikainak sortuko dira hauteskunderen emaitzen ondorioz.

Azkenik, Espainiar Estatuak eta herritar gehiengoaren aurka estutuak martxan jarri duen politika ekonomikoak Euskal Herriaren neurri horiekiko intsumisioa eta kontrako jarrerak erakundeetatik ere bideratzeko aukerak eskaintzen ditu.

## 2.

Orotara hiru jarrera nabarmen bereizten dira euskararen erabilera eta euskararen normalizazioari buruzko programetan.

Alderdi espainolisten artean euskararen erabilera oso testimoniala gertatzen ari da. Gehienez ere aurrez idatzirik testu labur batzuk irakurtzera mugatzen dira euskaraz ez dakiten hautagaiak.

Kasu honetan programari dagokionean euskara bigarren mailako hizkuntza izateko mugatzen dute. Gehienez ere, Legebiltzarrak onartuak dituen legeak onartu baina paper busti modura praktikotasun eskasera mugatu erabilera.

Indar Abertzaleen artean PNV euskararen legearen garapenaz ari den bitartean, EHBK euskara eguneroko praktikan normalizazio erreala lortzeko konpromisoa agindu du. Proposamen ausarta agindu du euskara praktikan lehen hizkuntza bilakatuzera zuzendua. Esana egi bihurtuko balu aurrerapauso handia emango genuke normalizazioruntz.

## 3.

Urriaren 22tik aurrera herri akordio zabala desio nuke Euskal Herria gisa jokatuz, ditugun gabezi politiko sozial, ekonomiko, linguistiko kulturali erantzun konprometitua eta iraunkorra emateko.





Joxe Agustin Arrieta  
Irakaslea

### 1.

Hauteskunde guztiak dira garrantzitsuak. Urriaren 21eko ere bai. Sistema demokratikoan egokiera garrantzitsua dira, legeko gure ordezkariak izendatuz, hiritar bezala geure erantzukizuna era berezian gauzatzeko. Ni neu abertzaleen historiko batean kokatzen naiz (PNV).

Oraingoan hiru xede dira garbiak: 1. Krisi ekonomikoa bideratzea eta sozial zuzentasunez irtenbidea bilatzea. 2. Bakea guztiz eta erabatekoa gauzatzeko eta sendotzea. 3. Euskal Herriaren nortasuna eta herrigintza pausoz pauso, baina ausardiarekin bideratzea, Euskadi gure herria eta aberria delako, eta erabakitze

eskubidea bultzatu beharko delako.

### 2.

Euskararen erabilpena oso juxtua da eta exkaxa izan da. Abertzale espainolista ez ez, eta abertzale euskaldunak berriz neurri kaxkarrean erabili izan dute euskara. Testimoniala eta beti sarreratxoak eta labar-bilduma egiteko.

Pauso handiak eman dira, batez ere, hezkuntza munduan. Ez gaude ezerezean. Baina euskararen erabilpen praktikoa oso txikia da. Guzti honek berraztertze eta birplannifikazio sendoa behar du.

Euskararen normalizazioak, plangintzak eta etorkizunak Hizkuntza Politika ausarta eta euskararekikoa behar du, ordezkatza garbia eraikitze eta zuzenduz, guztien konbergentzia bilatuz. Gaixo bat bizkortzeko maratona ez da biderik segurua eta hobereana. Helmuga oso urrun dugulako abiada eta lan handiegia hartu ditugu, agian. Arriskua daukagu jendea etsitzeko eta nekatzeko. Askotan galdetzen diot neure buruari, ez aurka nagoelako, baina zer aurreratzen dugu inork irakurri eta konprenituko ez dituen administrazioko paper guz-

tiak euskaratuarekin?

Orain arte egin dena lan handia izan da. Ezin dugu atzera egin. Euskararen etorkizuna segurtatu, euskarari funtzio erosoagoa eman eta gizartea gozo-gozo euskaraz busti, uholderik gabe, baina tinko eta iparra galdu gabe.

Azken bi hamarkadetan Jaurilaritzak burutu zuen eskatzen zitzaion plangintza. Askok egin da. Baina inoiz ez nahiko. Arlo honetan, akats handiak ikusi ditut, batez ere Ertzaintzan eta Osakidetzan, euskararen ezagutza eta erabilpen baxuarekin. Baina gure txanda, euskaldunon euskararen erabilpen praktikoa ere motza eta kaxkarra izan da.

### 3.

Batez ere eskaerak lorpen bihurtu nahiko nituzke:

- Politika desberdintasunak bide baketsu eta demokratikoak erabiliz bideratzea.

- Euskal Herriaren zutabeak guztion artean eraitzeko eta nekatzeko. Askotan galdetzen diot neure buruari, ez aurka nagoelako, baina zer aurreratzen dugu inork irakurri eta konprenituko ez dituen administrazioko paper guz-



etorkizunean, elkarrekin uztarturik nahi ditu nortasuna eta solidaritatea, askatasuna eta adiskidetasuna, oparotasuna eta gizarte zuzentasuna, aniztasuna eta batasuna, biziaren defentsa eraginkorra eta bizikideen defentsa eraginkorra. Estatutotik estatu eraikitza: hori da bidea.

- Normalizazio politikoa hedatzea, bakea behingoz eraikitzea, ETA desagertzea eta espetxeratuen egoera era demokratikoagoan bideratzea.

- Politikaren gizarteratzea. Zoritxarrez politika eta politikoez itzal txarra daukate. Politikoa kalera ateratu behar dira, herritarrei gehiago entzun eta elkar-lana indartu.

- Politika ekonomiaren menpe ez jartzea. Ezin da merkatuaren lege basatiaren menpe jarri. merkatuaren logika ekonomikoa gizarteari ezarri. Babes soziala beharrezkoa da. Ezin da onartu murrizketa trinkorik gizatzen gabe.

- Errealismotik plangintza egin, utopia tanta batzuk erantsiz. ©

# Hauteskundeak 2012 Eusko Legebiltzarra



Garbiñe Biurrun  
Epailea

### 1.-

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeek beti sortzen dute interes handia. Administrazio maila hurbila da eta denok dakigu gure Erkidego Autonomoan erabakitzen den guztiak, bai Legebiltzarrean, bai Jaurilaritzan, eragin handia duela gure bizitzengan.

Bestalde, oraingo honetako hauteskundeek interes berezia dute, arrazoi hauengatik: lehendabiziko aldiz, ETArekin presentziarik gabeko hauteskundeak izango dira; aspaldiko partez indar politiko guztiek gure erakundeetan politika asetasun osoz egin ahal izango izango dute; beraz, panorama politikoa askoz ere garbia izango da.

Erkidego Autonomoko

errealitate politikoa anitza da eta aniztasun hori erabat islatuko da hauteskunde hauen emaitzetan. Horrek, gainera, ekarriko du akordio zabalak lortu behar izatea eta, horretarako, derrigorrezkoak izango dira elkarrizketa sakona eta helburu amankomunak partekatzea.

### 2.-

Egia esan, alderdien programak ez ditut zehazki irakurri eta, beraz, horretaz dakidana oso orokorra da, hau da, lerro oso zabalak eta zehaztasun handirik gabe. Euskararekin gauza bera gertatzen zait eta, beraz, ez dakit zer nolako proposamen egin diren. Halere, ez dut uste alderdiek euren norabidea nabarmen aldatuko dutenik arlo honetan. Horretatik, nahiz eta ez dakidan zer proposatzen euskarari buruzia dute, arrazoi hauengatik: lehendabiziko aldiz, ETArekin presentziarik gabeko hauteskundeak izango dira; aspaldiko partez indar politiko guztiek gure erakundeetan politika asetasun osoz egin ahal izango izango dute; beraz, panorama politikoa askoz ere garbia izango da.

Bestalde, euskararen erabilpenaz ez dago aldaketa handirik: alderdi batzuek erabiltzen


dute normaltasunez, hau da, egunero eta asko; beste alderdi batzuek oso gutxi eta "artifizialki". Betiko panorama.

### 3.-

Legegintzaldi honetan espero dut gutxieneko helburu batzuk betetzea: a) lehena, krisi ekonomikoaren ondorioei serioki aurre egitea, ongizatea mantenduz, lanpostuak sortzen lagunduz eta jendearen lasaitasuna berreskuratuz; b) bestalde, bake prozesua sendotzea eta indarkeri guztiak erabat baztertzea, elkarbizitza "normalizatu" baten alde; c) azkenik, normalizazio politikoa eta Espainiako Estatuarekin dagoen harremana birpentsatzen hastea, iritziz guztiak plazaratuz eta garbi azalduz.

Horretarako, alderdi politiko guztiei eta, noski, ordezkariak lortzen dutenei, batez ere, zera esango nieke, legegintzaldi hau erabakigarria dela, pertsona askoren ongizatea, askatasuna eta lasaitasuna bere baitan daudelako. Eta eskatuko nieke alderdikeria alde batera uztea, denon arteko elkarrizketa sakona eta zabala sortzea akordioetara iritsi ahal izateko.

Gizarte honek ez du gutxiago merezi eta.



Garaian garaiko janariak  
eta arraikiatan bereziak

Tel.: 943 671 920  
Errementari kalea, 16 • 20400 Tolosa



GORRI

Paper manipulaziorako  
makina eraikuntza

Konponketa  
eta mantenimenduak

Apatta industrialdea.

Baratzondo D 26. Ibarra


Tel.: 943 671 590.

Faxa: 943 673 916

SANZ  
arraindegia

Tel.: 686 98 21 74  
943 65 17 85

# Gaztetxea/lokala



Eider Mintegi

Orixeko ikastetxeko ikasle talde baten ordezkari gisa

Orixeko ikasle talde batek eskolan hainbat ekintza egiten ditu, hala nola, hitzaldiak, kontzentrazioak... Gazteoi interesgarriak iruditzen zaizkigun gaiei buruz jarduten gara bertan. Ekintza horien artean, Gaztetxe eta lokalen ezberdintasunei buruz egindako hitzaldiaz idatziko dugu oraingoan.

Hitzaldi honen helburua, gehienbat, gazteak kontzientziaztea izan zen. Gaztetxe batek herri guztietan egon beharko luke, zenbait herri edo hiritan ordea gazte guztiak koadrilaka lokaletan biltzen dira. Gaztetxeetara, herriko gazte guztiak joan daitezke eta horiek elkartu eta beraien herrian hainbat ekintza antolatzen aukera dute.

Hitzaldiaren hasieran bideo bat jarri genuen hainbat Gaztetxetan egindako ekintzekin. Bideo horretan ondorengoak ageri ziren: Gaztetxe batzuetan, jateko ere dirurik ez duen jendeari dohainik bazkaria ematen zaiela, aurretik beste norbaitek erabilitako arropak norbaitek nahi baditu ezer ordaindu gabe har ditzakeela, dantza ikastaroak egiten dituztela, ordenagailua nola erabili ere ikastaroak ematen dituztela eta baita jendeari interesgarriak iruditzen zaizkion hainbat hitzaldi ere antolatzen dituztela. Beste Gaztetxe batzuetan, asteburuetan pintxo poteoa egiten dute eta bertara joateko, gazte zein zahar, edonor dagoela gonbidatuta. Gure ustez eman genuen informazioa oso beharrezkoa da, hasieran esan bezala, gazteak kontzientziazteko.

Jarraian esplikatuko ditugu bertan eztabaidatu genituen Gaztetxe eta lokalek ematen dituzten hainbat aukera.

Azken urteetan eta gehienbat biztanle askoko hirietan, gazteon arteko bereizketa geroz eta handiagoa ematen ari dela ikus daiteke. Orain dela urte batzuk arte herrietako gazteei elkartzeko eta hainbat ekintza burutzeko aukera ematen zieten Gaztetxeek beren identitatea galdu dute herri askotan, gaur egun, lokalak besterik

ez izanez. Hiri handietan ere gazteria lokaletan elkartzen hasteko ohitura hartzen hasi da azkenaldian. Hori oso garbi ikusten da Tolosa bezalako herri batean.

Gaztetxe eta lokalen arteko ezberdintasuna ulertu ahal izateko ez dago bertara joan beharrik. Gazteak elkarkez gain, hauei eskaintza kulturalak edo kirol eskaintzak eman izan dizkiete Gaztetxeek berriz, hau da, gazteria aktibo bat bultzatu izan dute. Gaur egun Gaztetxe izaera galdu duten lekuetan edota gazteak koadrilaka elkartzen diren lokal horietan berriz, droga mugitzen da nahi baino gehiago. Aldi berean herri edo hiri ezberdinetako gazteria koadrilaka bereizten ari da.

Lokalek gazteei hainbat abantaila ematen dizkiete, hala nola, kalean egoteko eguraldi txarra izanez gero, hauek elkartzeko edota beraien gauzak gordetzeko leku aproposa dute lokala. Gaztetxeek, berriz, abantaila horiek emateaz gain herriko gainerako gazteekin elkartzeko aukera ematen dute, eta denen artean herrian hainbat ekintza martxan jartzeko.

Artikulu honen bitartez, herri eta hirietako gazteak bultzatzen ditugu beraien herrietako Gaztetxetan biltzera eta herriko gazteekin zenbait ekintza egitera. ☺



Amaia Etxetxipia  
Nutrizio aholkularia

Etxe askotan bazkaltzeko ordua desesperatzeko modukoa bihurtu daiteke gure seme-alabekin, ezta? Plateraren aurrean eseri bezain pronto, kexaka hasten dira eta gu beti bezala presaka... Zer egin dezakegu egoera honen aurrean?

## Koxk! Nire haurrak ez du jan nahi!

Hurrek izaten dituzten nutrizio-arazo artean, jateko gogo eza eta negatibismoa aurkitzen dira. Jateko gogo eza denboran zehar luzatzen denean, egiazkoa edo faltsua izan daiteke. Egiazkoa bada, gaixotasun baten ondorioz izan daiteke eta faltsua denaren susmoa izan dezakegu haurrak zenbait janari baztertzen dituen baina beste gustukoago dituen arazorik gabe jaten dituen. Lehenengo kasuan, hazkuntzaren erritmoa txikituta egon daiteke, baina bigarren kasuan ordea ez.

Jateko gogo ezaren arrazoiak hauek izan daitezke:

- 1- Anoa kontuak. Batzuetan gurasoei, behar duena baino gehiago jan behar dutela iruditzen zaigu. Indartsu eta osasuntsu baldin badago, kantitateaz baino gehiago kalitateaz arduratu behar dugu, elikadura orekatua eta denetarikoa izanaz.
- 2- Haurrak egoera familiar berezi bat pasatzen ari denean (adibidez anai-arreba baten jaiotza), atentzioa deitzeko modu bezala erabili dezake.
- 3- Batzuk otorduetatik kanpo

jaten ibiltzen dira eta gero, noski, ez dute gosarik. Egoera honen aurrean zorrotzak izan behar dugu.

4- Lehen aipatu dugun bezala, haurra gaixo egon daiteke eta arazo fisiologiko baten ondorioz ez du gosarik izango. Kasu honetan ez dugu behar behar. Haurra sendatzean, berriro apetitu ona izango du. Kontutan hartu behar da ere, bazkaltzeko ordua momentu egokia dela elkarrizketa, sozializazio eta haurraren erlazio afektiboarentzat. Horregatik nahigabe edo tentsio handiko egoerek jateko gogo eza hori nolabait bultzatu omen dezakete.

Egoera hauek ondo eramateko, oso garrantzitsua da ez ahaztea haurrak direla eta beraien ezaugarriak dituztenez, egoera guztietan ezin dutela helduok dugun jarrera berdina izan. Adibidez, haurrak oso aktiboak izaten dira, beraz, ez omen da gomendagarria haurra luzeegi egotea janariaren aurrean (zenbait egoeratan garbi ikusten dugu hau, adibidez jende gehiagorekin bagoaude mahaian, zaila egiten zaigu haurra eserita ego-

ten behartzea denak jaten bukatu arte, ezta?) Janarietako ditugun arauak pixkanaka sartu behar omen dira; garrantzi handiena ondo elikatzeari emanaz eta ondoren arauekin hasiaz.

Jateko gogo eza faltsua denean, dudarik gabe, zorrotz azaldu behar gara. Ala ere, zenbait kasuetan, haurrak sekulako arazoaz azaltzen du janari berriak probatzeko orduan. Pazientzia handia izan behar da honelako kasuetan. Gomendagarria da pixkanaka sartzea janari eta zapora berriak, kantitate txikiarekin hasiaz (trikimailu bat izan daiteke adineko koilarakada bat eskatzea), negoziatuaz... Momentu batean haurra bera izaten da bere borondatez probatzen duena eta konturatzen dena zein goxoa den probatzea ikara ematen zion janari!

Bukatzeke, hauek dira jateko gogo ezaren aurrean ematen diren gomendioak:

- eguneroko otordu nagusiak bertzea
- menua datorren ordenan jatea
- proportzio txikiak zerbitzatu eta errepikatzen uztea
- ez da gomendagarria garrasiak,

haserreak edo zigorrak adieraztea

- kapritxoei amore ez ematea
- janaria hotzegia edo beroegia egotea ekiditea
- janariak erosteko orduan ez da komeni gurasoek haurrari xantaia egitea
- mahaian 30 minutu baino gehiago egotea ez omen da gomendagarria
- jateko orduan ez dira beste aktibitate batzuk batera egin behar (jostailuekin ibili, telebista ikusi...)
- eredu izan (adibidez, guk ez badugu frutarik jaten, nola lortuko dugu berak jatea?)
- janariaren itxura zaindu (erakargarria izan dadin)

Eta azkenik, kontutan izan behar duguna ondorengo: haurrak elikagai talde guztietatik jaten badu, ez da ezer gertatzen janari konkretu bat gustatzen ez bazaio... Helduoi ere berdina gertatzen zaigu!



# Tolosa Zero Zabor

## “hondakin hoberena sortzen ez dena”

Zero Zabor Tolosako taldeak gaur egun Gipuzkoan denon ahotan dagoen zaborren eztabaidaren muinari heldu dio eta herritarrek ingurunea babesteko eragile izateko apustu egin du. Kontsumismoak eragiten dituen zaborrak ahalik eta gutxien sortu eta norbere zaborren ardura beregain harturik %80tik gorako birziklapena bermatzen duen atez-ateko aukeraren alde dago. Zaborren gain, komunikazioa, heziketa, konpromisoa eta aurrerapausoak gauzatzearen beharra aldarrikatzen du Tolosa Zero Zabor taldeak.

Felix Aiestaran

Gai honetaz hausnartze-ko Orkatz Goenaga, Oihana Ugarte, Manex Izagirre, Ander Agirrezabala, Nekane Arsuaga, Beñat Elozegi, Maite Zelaia eta Ana Sanzekin bildu gara. Europan zehar saretua dago zaborra murrizteko mugimendua. Tolosako Zero Zabor Taldea asteartero biltzen da, 19.30ean Tolosako Kultur Etxean eta atekak zabalik dituzte mugimendua indartzeko prest dagoen herritar guztion aholku eta babes jasotzeko. Beraien berri izateko hurrengo webgunea eskura dago: [tolosazerozabor.wordpress.com](http://tolosazerozabor.wordpress.com)

### Zer da Zero Zabor Taldea?

Tolosar batzuk, Zero Zabor helburuaz biltzen dituen taldea da. Nazioarteko sarea ere badago; *Zero Waste* eta gurea bezalako taldeez osatuta dago. Helburuetako bat zaborrekin erabiltzen den sistema lineala aldatzea da: natur baliabideen ustiapena + kontsumoa + zabor pilaketa + errausketa = kutsadura eta gaixotasunak. Kontsumitutako gaia hondakin bezala erabili eta berriro energia bihurtzen duen sistema zirkularra bilakatzea nahi duen taldea da. Lehenengo Mundua deitzen den honetan, baliabide naturala agortzen ari



garenez, ondorengo belaunaldiek etorkizuna izan dezaten birplanteatu beharko dugu gure kontsumoa.

### Nola sortu zen taldea?

Usurbilen errauskailuren inguruan hausnarketa egiten hasi ziren eta Europan zabaldua zegoen zaborren inguruko filosofia bereganatzen hasi ziren. Horrela errauskailuak alternatiba bazuela nabarmendu zenez, gu ere abian jarri ginen Zero Zabor filosofiarekin bat eginez.

### Zaborra birziklatu baino ez al da hobe bat ere ez sortzea?

“Hondakin hoberena sortzen ez dena” dela dioen esamoldea hortxe dago. Enpresa eta supermerkatu desberdinek horren

beste hondakin sor ez dezaten kanpaina egin beharra dago. Murrizketa, berrerabiltzea eta birziklatzearen artean, lehenik bultzatu behar dena murrizketarena da. Mozenean poltsak ematen hasi zirenean gogoratzea da; etxetik gurditxoarekin ibiltzen ginenontzat poltsa haiek modernitatea adierazten zuten. Sistema honek garapen okerra egin du, gutxi irauten diren gaiak egiten dira, berriro erosi behar izateko. Erosi eta bota egiten duen gizartean bizi gara.

### Jendarte honen arazo nagusia ez al da kontsumismoaren ardatzean oinarrituta egotea?

Bizkortasunaren ereduak da nagusi eta horrekin batera kontsumismoa areagotu egiten da.

Denak berria izan behar du eta abiada horrek zabor ugari sortzen du. Baliabide mugatuak ditugu eta daukagunarekin moldatzen ikasi beharko dugu. Zaborra Udal edo Diputazioaren arduratzen jotzen dugu eta horrek ez du eraginik gure eguneroko bizitzan. Kontzientziario lan handia egin beharra dago, hondakinak denon ardura izan daitezten.

### Zaborren arazoa ez al da gizarte osoaren norabidearen isla?

Agintean daudenen diskurtsoa guk aldarrikatzen dugunarekin bat dator, baina ekimena aurkakoa izaten da. Espainiako zaborren araudia irakurritik gero, bat gatoz diogenarekin, gero aurkakoa egiten bada ere. Estatuak ez du birziklapena bultzatzen du-

ten enpresak laguntzen. Sortzen den zaborra ezkutatu nahi izaten da. Erre egiten da. Alemanian hemengo ontzien lege berdinarekin kontrako politikak aplikatu dituzte. Alemaniak ontziak bildu eta berrerabiltzeko sistema ezarri eta negoziatzen egin du. Zaborra sortu beharrean materiala berrerabili egiten da. Sagardo botilak berriro berrerabiltzen hasia da atzera begiratzea, aurreratzea, baizik.

### Zaborren gaia ez al dago erabat politizatuta?

2003. urte aldera, erraustegiaren aurkako plataformak eta Gipuzkoako talde ekologistak guztiak, *Greenpeace* barne, errauskailuaren proiektuaren aurkako borrokan zeuden. Ho-





16 rrek Usurbilen Zero Zabor sortzea bideratu zuen. Gainera, 2011n Gipuzkoan gertatu den aldaketa politikoaren etorrerak arazoa mahai gainean jarri du Gipuzkoa osora zabalduaz. Erakundeek lehen ezkututzen zuten mugimendua azaleratu egin da. Napoli inguruan ikusi dugu atez-ateko aukerak irtenbidea eman diola lehen mafiak kudeatzen zuen zaborraren gaiari, era naturalean, inolako politizaziorik gabe. Katalunian ehun udalerrri baino gehiagotan egiten da, Paris eta Londreseko auzoetan, San Frantzisko hirian... Europan oso zabaldua dago atez-atekoa.

**Erakundeek zein interes dute errauskailuaren alde egiteko?**

Arrazoi ekonomikoak, erabat. Eraikuntza enpresek eta errauskailuaren kudeaketa enpresa-gaiek dute errauskailuaren aldeko interesa. Higiezinaren boomak behera egin duenean errauskailuaren aldeko interes handia azaldu dute porlan-egileek. FCC moduko holding handiak atzetik ari dira.

**Atez-atekoa errauskailua baino merkeagoa izango al da?**

Udalek eta Foru Diputazioak kudeatu behar duten zabor bilketa sistema bere osotasunean hartuta, atez-atekoa merkeagoa da. Ez litzateke beharrezkoa izango errauskailu baten azpiegitura egiteko inbertsiorik ezta bestetik, gaur egun Tolosan tonako ordaintzen den 140 euroko tasarik ere. Organikoaren tratamenduan atez-atekoan tonako 60 euro ordainduko litzateke (80 euro aurreztuz tonako); gainera, paperak 100 euro inguruko diru sarrera eta ontzi arinak 60 euro inguruko diru sarrera sortuko lukete tonako.

Zaborraren %50a diru sarrera izan behar duenean eta beste %40a oso erraz eta merke kudeatu daitekeenean, gaur egun zaborregietan eta errauskailuarekin are garestiago ordaindu egiten dugu. Atez-atekoarekin merkeagoa izateaz gain, enplegu hirukoitzak edo lauhoitzak sortzen da. Herrialde askotan atez-ateko sistema arrazoi ekologikoen ordez, arrazoi ekonomikoengatik jarri

izan da abian. Bestetik, errauskailuak zaborra ez sortzearen lehen puntua txikitu egiten du, errauskailuari jateko eman behar zaiolako.

Gipuzkoarrok 400 milioi euroko gastua izango genuke horrelako azpiegitura bat ordaintzen. Mallorcan birziklapena ez egiteko agindu behar izan dute, errausketaren martxari eutsi ahal izateko. Errauskailuak funtzioa dezan Europatik zaborra ekartzen dute. Hor badago beste koska bat ere, zerbait berrerabili badaiteke zer dela eta erre behar da? Zaborraren %90a berrerabili edo birziklatu baldin badaiteke, erretzeak ez du batere logikarik.

**Zer egingo da %10 horrekin?**

Errefusean erratzaz bildutako hautsa, umeen haur-oihalak... eta abar sartzen dira. Tratamendu planta batean beste bereizketa egiten da eta geratzen dena trinkotu, inertizatu egiten da. Etorkizunean beste irtenbideren bat asma daiteke, baina oraingo azkeneko zabor horientzat zabortegia behar da, Gipuzkoan

planteatzen diren beste sistema guztiak bezala. Gaurko sistemarekin zaborretara bereizirik botatzen dugunaren %23a birziklatzen da eta errefusa %70a izaten da. Kontuan izan behar da Tolosan %23ak egiten duela hondakinen bereizketa ondo, industriako hondakinak batuz gero, %34ra iristen da.

**Jendea nahiko informatuta dagoela uste al duzue?**

Jendea jakin-minez dago. Zerbait badaki, baina jakiteko asko falta da. Hezi egin behar da, Udalak herritarra hezten, kontzientziazten eta informatzen hor du bere betebeharra.

Gaia politizatu den heinean, etxeetara, buzoietara iritsi diren foto-muntaiak... Desinformazio handia dagoenez jendeari informazioa emateko lan izugarria dago. Gure ateak zabalik daude edonorentzat eta hitzaldiak emateko ere prest gaude.

**Alor honetan jendeak zeri izan diezaioke beldur?**

Jendeak edozein aldetari dio beldurra. Gaur egun zabor bereizketa heren batek ondo egiten du, baina bi herenek ez. Herritarren bi herenen ohiturak aldatu behar dira. Jendeak desinformazio handia du gai honetan: arratoiak pilatuko direla, arraina egun batean besterik ezin izango dela jan... Jendeak nola ez du beldurrik izango? Informazio eta heziketa lan handia dago. Ez da erraza izango aurreiritzi ugari sortu delako.

**Epeak zehaztuta al daude?**

Toki bakoitzean zorionez, udalak zehaztuko ditu epeak. Beste eremuetan aldetak zehaztu dira, indarrean jarri eta arazorik gabe bete dira. Gidatzeko alkohol tasa edo toki publikoek

tan erretzearen debekuarekin hasieran kezka sortu zen, baina indarrean daude. Zabortegiak agortu dira eta orain gure erosotasunagatik beste herrietako biztanleak zigortzen ditugu, bere herrian zabortegia martxan eduki beharrekin. Kutsatzeko eskubidea ezin da onartu, zabortegiak oraintxe itxi behar dira. Atez-atekoa jarri den herrietan bilakaera erraz eman den modura, hemen ere berdin emango da. Hernanin jendea egiten duenarekin oso ondo sentitzen da. Zentzua duen, zerbait onuragarria egiten ari denaz jabetzen da. Sortzen duen hondakinaz arduradun egiten da, ez dute zaborra sortzen. Erosketa ohiturak ere aldatu egin dira.

**Gipuzkoako hiri handietan ere atez-atekoa indarrean jarriko al da?**

Prozesua abian den heinean, herri txikiagoetan abian izanik, hiri handiek ere urratsak eman

Derrigortuta zaude ondo egite- ra. Atez-atekoa zero zabor helbururantz bitartekoa izan behar du, garatu eta hobetu egin behar duen sistema izan behar du. Aste batetik bestera, %24a birziklatzetik %70a birziklatzera pasatzen da.

**Herritarra ez al da kontrolatuta sentituko?**

Gaur egun bankuak, txartelak, teknologia datuak eta Estatuegatik erabat kontrolatuta gaude. Nori interesatuko zaio zer bota dudana zaborretara? Atez-atekoarekin prebentzio lana egin daiteke, zabor gehiago sortzen duenak gehiago ordaindu behar duelako.

**Zein edukiontzia erabiliko da?**

Organikoentzat kuboak, plastikoetan bildutakoarekin baino konpostea hobea egiten baita. Beste gaiak poltsetan bilduko dira. Organikoa hiru egunetan, edukiontzia arinak bitan, papera

eta bestetik, umeen haur-oihal eta konpresekin errefusarako gorde beharra dagoela beldurtzen du, baina hauek egunero biltzen dira atez-atekoan.

**Zein dira Tolosa Zero zaborren asmoak?**

Gure asmoen barruan, auzoetan 10-15 familientzako auzo-konpostea jartzeko eskaria egin nahi diogu Udalari. Konpostea egiteko arduradun batekin prestakuntza eman dezan, bere borondatez apuntatzen den bizilagun taldearentzat. Sortutako konpostarekin herriko lorategiak edo inguruko baserritarren baratzak aberats ditzakegu. Zero Zabor filosofia aurrera eramanez, lurra eman-dakoa lurrera itzuli zirkulua itxiaz. Ontziak itzuli egin behar diren esne makinak bultzatu nahi dugu bertako esnea edan ahal izateko ere. San Blasen dagoen Berrerabilpen gunea herriaren erdigunera gerturatu

teko. Arrandegi eta harategiko erosketak egiteko *tupperware*ak banatzea eskatu nahi diogu Udalari. Hauek gure asmoen barruan ditugun helburuak dira. Horretarako, Zero Zabor talde eragile bezala Udalarekin elkartu nahi dugu maiztasun batekin gure eskakizunen berri jakin dezan.

**Heziketa arloan ez al da asko aurreratu kontzientziazioari dagokionez?**

Tolosan hirutik bik hondakinak gaizki bereizten baditu zeregin handia dago kontzientziazio arloan. Hezkuntza eta etxea batera joan behar dute. Atez-atekoa dagoen herrietan, udalak herritarrei non zer hondakin bota behar den zehaztuta dagoen zerrenda liburuxka banatu zaie. Tabernari batek galdetu zuen plastikozko botilekin zer egin behar izango duen, erantzun genion oraingo sistemarekin ere plastikoa bere-



beharko dituzte. Atez-atekoak besterik ez du bermatzen birziklapenik handiena. Sasieta gaikako bilketa bosgarren edukiontzia izanik, ez da %50era iristen. Usurbilen atez-atekoarekin %80ko bilketa egiten da. Atez-atekoarekin zaborraren ardura azken unera arte norberarena da.

behin eta errefusa beste batean. Gero, norberak edozein unetan zaborra uzteko larrialdirako gunea izaten da zabalik. Ostalariekin adostuta bilketa berezia egiten da eta Garbigunea ere badago. Jendea gehien beldurtzen duena organikoa da eta hau astean hiru egunetan biltzen da,

nahi dugu, jendeak erabil dezan erraztasunak eman behar zaizkio. Bertako produktua kontsumitzeko kanpainak, larunbateko azoka... Bestetik, festetan egiten diren bazkarietarako protokoloa osatu nahi dugu, zaborrik ez sortzeko zer platerak erabili eta beste zehaz-

zi behar duela. Ordenantzetan zehaztutako betebeharra da. Etxean oraingo sistemarekin hondakinak ondo bereizten dituenak, atez-atekoarekin ez du izango inolako arazorik izango. Organikoaren ontzia gehituko zaio, etxeko bilketa eratzeko.



# Laskorain Ikastola KMK 2013ri begira

Laskorain Ikastolak 2013ko Kilometroak festa antolatzearen ardura izango zuela jakin zuenetik buru belarri isileko lanean dihardu. Iragan urriaren 7an ordea, Andoaingo Manuel Larramendi ikastolaren eskutik testigua jaso eta atzerako kontaketa errealitate egin da.

Erredakzioa

Galtzaundi Joxan Oiz, Laskorain ikastolako lehendakariarekin bildu da orain arteko eta aurrerantzean egin beharreko lanari buruz datu gehiago izan asmoz.

Laskorain Ikastolak sei urte eman ditu Kilometroak festaren antolakuntza eskuratzearen atzetik. Azkenean, 2013. urteko edizioaren antolakuntza bere gain hartuko du Gipuzkoako Ikastolen Elkarteak horrela erabakita. Aukeratu izateko proiektuak ezinbestean onura ekonomikoari dagokionez, az-

piegitura baten alde egin behar du. Laskorainen kasuan proiektua dagoneko garatua dagoen eta iazko urrian inauguratutako Sakramentinoen eraikin berriua da. Joxan Oizek horrela azaltzen du: "herriarengandik jasotzen dugun diru hori nolabait herriri uztea da asmoa; lurra eta eraikin zaharra Sakramentino apaizei erosi zaie eta ondoren ikastolaren beharretara moldatu dugu".

Izan ere, Tolosako ikastolak eraikuntza berri hau eraiki izana beharrean oinarriturik dago: lau lerroko ikastetxe baten beharrei erantzutea da helburua, hau da, maila bakoitzeko lau geladun ikastola bihurtzea. "Orain arte Laskorain ikastolak maila bakoitzean hiru gela zituen, baina azken urtetan, alde batetik, ma-

trikula jaiotze tasa igo delako eta bestetik, ikastola aukeratzan duten tolosar familia portzentajea igo denez, maila bakoitzean hiru gela izatetik, lau gela izatera pasa gara. Gure apustua tolosar familien aukeraketa ikusita burutu dugu. Horretarako, eraikuntza berri bat egin behar izan dugu".

Eraikuntzaren portzentaje baten finantzazioa izango da hortaz festa antolatzearen helburu ekonomikoa. Baina bestetik, Joxan Oizek azpimarratu bezala bestelako helburuak ere baditu Laskorain ikastolak KMK festaren antolakuntzarekin: "Ikastolaren proiektua euskararen normalizazioan, biziraupenean eta erabileran izan duen arrakasta gizarteratzea nahi dugu; horretarako, bozgorailu ezin hobea da

KMK. Euskararen normalizazioan irakaskuntzan izan dugun lekutxo, orain Gipuzkoa eta Euskal Herri osora zabalduko dugu. Ilusio ikaragarri batekin heltzen diogu erronka honi".

Erronka hau ikastolari hedatzeaz gain, Tolosa herri osoari zabaldu nahi dio Laskorainek. 1998an Tolosaldean ospaturiko Kilometroak gogoan, hurrengo urteari begira ere, eskualde osoa proiektuaren partaide bihurtzea da antolakuntzaren xedea: "1998a ezker esperientzia bat badago -Ikastola, eragileak, agenteak, gurasoak, partaideak,..., denetariko jendea dugu tartean baina ezinbestean Tolosa herria eta Tolosalde osoko laguntza behar dugu", dio Oizek.

## 2.000 boluntarioen beharra

Eskualde osoari begira antolatu beharreko festa dela argi du Laskorain ikastolako lehendakariak, eta baita urte osoko egitaraua osotuko duen ekitaldia izango dela ere. Horretarako, dagoeneko lanean dauden 13 batzorde ezberdinen laguntza eta partaidetza ezinbestekoa izango da -oraindik, osatzeke dago, besteak beste, ikasleen batzordea-. Baina protokoloa, trafikoa, ikuskizunak, komunikazioa, ekonomia, zirkuituak... bezalakoak, dagoeneko lanean dihardute. Guztira, 1.500-2.000 boluntario bitarteko partaidetza behar izango dutela aurreikusit

dute antolakuntzatik (Kilometroak webgunea martxan jarri bitartean, www.laskorainkastola.net helbidean izena emateko aukera dago). Boluntario eta batzorde guzti horien koordinazio lanetan ordea Unai Igartua jardungo da.

Orain artean egindako lanaren lehen aurkezpena azaroaren 23an aurkeztuko da. Izan ere, ostiral horren esperoan, geratu beharko dira tolosarrak hurrengo urteko proiektua ezagutzeko; hau da, leloa, irudia eta desfile bitartez arropak aurkeztuko dira azaroaren 23an, Tolosako Leidor aretoan, bi txandatan, arratsaldeko 18.00etan eta 20.00etan. Behin, "top secret" den irudi eta leloa zabaldua, azaroaren 24an Tolosako Korreo kalean Kilometroak 2013ko denda iraunkorra zabalduko da. Arropa eta material ezberdina eskuratu nahi duenak Tolosako dendaz gain, urte osoan zehar Gipuzkoako festetan ere aukera izango du. Izan ere, denda batzordeak, urtean zehar 300 irteera -400 laguneko partaidetza eskatzen duena- antolatu ditu.

Azaroaren 23an, urte osoko festa eta egitarauari hasiera emango zaio: "egun erabateko inportantzia du baina KMKek 365 egun baino gehiago hartu behar ditu bere gain. Tolosak erronka horretan ez du kale egingo. Gure helburua urtea ekintzez betetzea da", dio Joxan Oizek.

Horrela, KMK 2013 antolakuntzaren helburua "erreferentziala" izatea da; Oizek 1998ko Kilometroak gogora ekarri eta 2013koa azpimarratzeko urtea izatea bihurtzen du: "bere garaian 1998an Tolosako mugari izan zen eta aurten ere Tolosatik kanpokoek modu onean mugari ikustea nahiko genuke. Olatua aprobetxatu behar dugu euskararen erabilpenaren ikuspegitik, ikastolaren ereduaren zabalpen eta normalizazioan".

Horregatik, beharrezkoa izango da eskualde osoa proiektuan konprometitzea: "jendea inplikatzeko nahi dugu, urtean zehar zerbait berezia dagoela sumatu dezala nahi dugu. KMK ekintza transbertsala bihurtuko da. Babarrun festan, iñauterietan, txotxongilo jaialdian, abesbatza jaialdian... matraka ematen ariko gara" aurreratu du Laskorain ikastolako lehendakariak.

Azken finean, Kilometroak 2013 Tolosa eta Tolosalderako festa bihurtuko da: "gure erudutik abiatuta ilusioa berpiztu nahi dugu, ikastola garaile harro aldarrikatuko dugu eremu ezberdinetan".

Tolosak eta Tolosaldeak urte osoan Kilometroak festaz zipriztintzeko, gozatzeko, boluntario lanetan aritzeko aukera izango dute. 2013an urriaren 6an Tolosan ospatuko den festaren atzerako kontaketa hasi da. ☺

URDAIKARIAK  
*Altuna*  
HARAKINAK  
Korreo. 39 20400 TOLOSA  
Tel.: 943 671 414 Gipuzkoa

gizarte  
kutxa

ZABALA  
DESGUAZEAK  
KUDEATZAILE BAIMENDUAK  
EU2/111/04  
BEOTIBAR INDUSTRIALDEA. 18 - BELAUNTZA  
TEL./FAXA: 943 671 790 -  
MUGIKORRA: 696 593 347

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA  
Foruak, 5-bis • TOLOSA  
Tel.: 943 652 712

matilda  
zure moda osagailu denda  
Korreo Kalea, 3  
Tolosa

Gozotegia Okindegia  
**ECEIZA**  
P. Gorosabel, 34 - Telf. 943 655 161 - San Francisco, 8 - Telf. 943 651 916



# hitzordua

Urriaren 19tik azaroaren 2ra bitarteko

irakurri  
entzun  
ikusi



Independentziaren paperak  
Pako Aristi

Euskaldunon artean independentziaren espirituak egin duen ibilbide luzea jasotzen duen liburua. Saiakeraren baliabide guztiak erabiliz, hala nola kronika historikoak, hedabideak, filmak, elkarrizketak edota gogoeta filosofokoak, egoeraren diagnostiko zorrotza agertzen du, baina ez hori bakarrik: proposamen eta definizio sorta uzten du mahai gainean, irakurlearen esku.

Zorion argiak  
Betagarri



Urriaren 24an argitaratuko bada ere dagoeneko "Milaka izar berri" kanta *Spotify*n eta *Youtuben* jadanik entzungai dago. Gari, El Drogas, Iñigo Muruguza eta beste hainbat abeslarik parte hartu dute gasteiztarren lan berrian. Rock, ska eta reggae doinuak entzun ahal izango dira; guztira, 23 abesti berri osatu eta bildu ditu Betagarri taldeak.

Zuloak  
Fermin Muguruza



Bilboko Unibertsitateko Arte Ederretako ikasle batek, Arrate Rodríguezek, bere fakultateko bi neska elektro-rock banda bat sortu nahi dutela jakingo du, eta laster hainbat proposamen estetiko, ekintza eta propagandako jarduerak iradokiko dizkie. Ondorioz, taldeko ezinbesteko pieza bilakatuko da, kamera beti eskuan duela, proiektua gauzatzeko egiten dituzten mugimendu guztiak jasotzeko prest.

## Dantza

**Errimak oinetan.** Urriak 19, ostirala. Bertsolaritzan oinarritutako dantza saioa, Haatik dantza konpainiaren eskutik. Tolosa, Leidor. 20.30

**Buba.** Urriak 20, larunbata. Kresala dantza taldea. Tolosa, Leidor. 17.00

**Udaberriren elkartrukea La Seca dantza taldearekin.** Urriak 27, larunbata. Tolosa, Berdura plaza. 18.00

## Bertso afaria

**Xalbador, bat-bateko mirakulua.** Urriak 19, ostirala. Xabier Amuriza Xalbadorren paperen ariko da. Galtzaundi Euskara Taldeak antolatua. Tolosa, Lizardi Elkartea. 21.00

**Bertso afaria.** Urriak 20, larunbata. Jon Maia, Julio Soto eta Andoni Egaña. Tolosa, lurre elkartea. 21.00

## Antzerkia

**De allá.** Urriak 19, ostirala. Zikloia 2012. Jhon Ardilla. Tolosa, Kikara Taberna. 23.00

## Proiektzioa

**Hegoaldera bizikletaz.** Urriak 19, ostirala. Joanes Gibelaldiek aurkeztuta. 2007 maiatzaren eta 2008 urriaren artean, 17 hilabetez, Joanesek 26.00 km. egin zituen

bizikletaz, planetako zenbait leku ezkutukoenetatik igaroz eta 29 herrialde zeharkatuz. Abaltzisketa, Goibegi Etxeko auditorioa. 21.00

## Kz Gunea

**Albiztur.** Urriak 19, ostirala. 09.00-13.00.

**Berastegi.** Urriak 22 eta 29, astelehena. 09.00-13.00

## Zinea

**Zuloak.** Urriak 20, larunbata (19.30) eta urriak 22, astelehena (20.30). Ikuslearen eguna). Fermin Muguruza zuzenduta (95 min. +7 urte). Tolosa, Leidor.

## Ikastaroa

**Identibuz proiektuaren pres-taketa tailerra.** Urriak 20, larunbata. Tolosaldea Garatzeneko Immigrazio sailak antolatuta. Tolosa, Kultur Etxea. 09.00

**Nazioarteko politika.** Urriak 22 eta 29 astelehena. Jesus Torquemada hizlari eta Tolosaldean Ikastnek antolatuta. Tolosa, Topic. 19.00

## Ospakizuna

**Udaberri dantza taldearen 55. urteurrena.** Urriak 20, larunbata. DVD aurkezpena eta proiektzioa, triki poteoa, afaria Zerkausian eta bertso saioa Amets Arzallus, Alaia Martin eta Iker Zubeldiarekin.

## Odol emaileak

**Odol ateratzea.** Urriak 22, astelehena. Tolosa, Kultur Etxea. 18.00

**Odol ateratzea.** Urriak 26, ostirala. Alegia, sendagilearen etxea. 19.00

## Komertzio Atseginaren Gala

**Urriak 26, ostirala.** Iker Galarza, Juantxo Zeberio, Elene Arandia, Udaberri Dantza Taldea, Kultur Etxeko Dantza Taldea, Tolosako Otxokotea... Tolosa, Leidor. 20.30

## Ipuin Kontaketa

**Urriak 26, ostirala.** Ipuin txokoa, gurasoak ere ipuin kontari! 3-6 urte bitarteko haurrei eta euren gurasoei zuzendurik. Miriam Mendoza ipuin kontalariak eskainia. Tolosa, Errota Haur Liburutegia. 18.00

## Kontzertua

**Musica pintada.** Urriak 27, larunbata. Joan Baixas. Tolosa, Topic. 18.00

## Azoka

**Tolosa Goxua.** Urriak 27, larunbata. Tolosa

## Festa

**Festa eguna.** Urriak 27, larunbata. Bazkaria Errementañen, sagardo dastaketa, dantzaldia Axier Unsain eta Irma Karrera-ekin. Abaltzisketa

## Tolosa Kantari

**Tolosa Kantari.** Urriak 27, larunbata. Tolosa, Agirre doktoaren plaza -Tontokale-. 12.00

## San Esteban Auzoko XXV. Kultur Astea.

**Urriak 19, ostirala.** Afaria garagardo azokako menuarekin, Unai Muñoa eta Oskar Estanga bertsolariek girotua eta ondoren DJ King.

**Urriak 20, larunbata.** Mus txapelketa, ginkana eta haur jolasak, zaldi gurdi eta ponyan paseoa auzotik, mural margoketa partehartzaile BOXaren laguntzarekin, buruhandiak, txokolate jana, Ras, Peachy Joke eta Dj Puntzaka.

**Urriak 21, igandea.** Diana, trikitixa, meza, toka txapelketa, babarrun jatea eta dantzaldia "Joxe Jabier Mendizabal"en eskutik.

## langile eta langabetuentzat ikastaroak, doanik.

Langile eta Hezkuntza Sailak diruz lagunduak

Ikastaroaren izena	Hasiera data	Ordu Kopurua
Automatismo elektrikoaren muntaia eta konponketa (koadro elektrikoak)	2012.10.22	60
Aplikazio informatikoak testuak tratatzeko (Word)	2012.11.05	30
Txirbil harroketa bidezko prozesuen mekanizazioa (Fresatzeko makina)	2012.11.19	80
Rutilo elektrodoko bidezko soldaketa (euskaraz)	2012.11.26	90

Gure ikastaro eskaintza ezagutu nahi duzu? Jo ezazu Tolosaldea GLHBko bulegora. Santa Luzia 17 - 20400 Tolosa. Telefonoa: 943.65.11.47 - 615.775.678

idazkaritza@tolosaldea.com  
www.tolosaldea.com

info@ikastn.com  
www.ikastn.com



TOLOSALDEA BERRIKO ITZULIA  
Instituto Superior de FP. TOLOSALDEA

## Goardiako farmaziak

<b>Ostirala, 19</b> Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa	<b>Asteazkena, 24</b> Bengoetxea E. (Kale Nagusia, 7) Tolosa	<b>Astelehena, 29</b> Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa
<b>Larunbata, 20</b> Olarreaga M. (M.J. Iraola, 10) Tolosa	<b>Osteguna, 25</b> Iturrioz, I (Euskal Herria, 3) Ibarra	<b>Astearte, 30</b> Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa
<b>Igandea, 21</b> Echeveste, J.M. (Gernikako arbola, 3) Tolosa	<b>Ostirala, 26</b> Lejeune, Leyre Euskal Herria, 46 Ibarra	<b>Asteazkena, 31</b> Bengoetxea E. (Kale Nagusia, 7) Tolosa
<b>Astelehena, 22</b> Olarreaga I. (korreo kalea 2) Tolosa	<b>Larunbata, 27</b> Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa	<b>Osteguna, 1</b> Lejeune, Leyre Euskal Herria, 46 Ibarra
<b>Astearte, 23</b> Bengoetxea E. (Kale Nagusia, 7) Tolosa	<b>Igandea, 28</b> Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa	<b>Ostirala, 2</b> Iturrioz, I (Euskal Herria, 3) Ibarra

## Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketta-Abaltzisketa-Albiztur	Gernikako Arbola,hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	Amarozko dispensarioa	943 672 637
Altzo	Asunzion klinika	943 675 799
Medikua	(larrialdiak)	943 675 390
Anoeta-Alkiza-Hernialde	San Kosme San Damian	
Medikua	geriatrikoa	943 672 932
Baliarrain	Udaltzaingoa	943 675 858
Medikua	Ur eta Argia (Tolargi)	943 650 016
	Ur zerbitzuak (aberiak)	639 352 156
Berastegi-Elduain	lurreamendi egoitza	943 670 325
Medikua	Larrialdiak, Suhiltzaileak	112
Bidegoian	DYA	943 672 536
Medikua	Gurutze Gorria	943 674 888
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu		943 651 425
Osasun etxea	943 672 411	943 673 022
Ikaztegieta	Ertzantza	943 675 320
Medikua	Tolosa Gasa	
Irura	Lizartza	
Osasun zentroa	Medikua	943 682 077
Tolosa	Orendain	
Anbulatorioa, larriald.	Medikua	943 655 595
San Esteban, hitzordua	Orexa	
	Medikua	943 682 228

**KEY-LAN**  
SARRAILGINTZA

Nafarroa etorbidea, 13-behea  
20400 Tolosa  
Mobila: 670 417 922  
Tel./Faxa: 943 650 313

ARTESANIA  
**ZUEN TZART**  
eskuz esku  
arrunta berezi bihurtu!

GERNIKA, 4 TOLOSA  
ARTESANIAZUENTZART@EUSKALNET.NET  
TEL. 943 650 359

**TINDATEGIA**

**KATZ**

Laskorain kalea • TOLOSA  
Tel.: 943 652 618

**ARALAR KIROLAK**

Laskorain, 7 • TOLOSA  
Tel.: 943 654 916

## Muxutruk

### Lana

• Ingeleseko eta frantseseko klaseak barka edo taldeka. Maila desberdinak. Irakasle tituluduna. 664 160268

• Sukaldari edo zerbitzari laguntzaile gisa lan bila nabil. Homologatutako titulua daukat. 671 44 66 15.

• Klase partikularrak Tolosan. L.H. eta D.B.H. Gai guztiak. 645 710 789 (Ana). Barnaka edo binaka. Esperientzia

• Emakumea, etxeko lanak egiteko eta pertsona helduak zaintzeko prest. 688 642 137

### Etxebizitza

• Pisua salgai Erremontari kalean, 42 m2 eta erreforma egiteko. 620 129 295

• Jaka-ko urbanizazio batean azken 6 etxebizitza salgai garaje eta trasteroarekin. Prezioak: 120.000,- € eta 145.000,- € artean. Erabateko kalitatezko ekipamenduak. Informazio gehiagorako deitu 619311255ra.

### Salgai

• Quads-a salgai. Gasgas K2 250 c.c. 2055 urtekoa, 2 lagunentzako homologatua. Prezio interesgarria. 618 254960. Aritz.

• Furgoneta Volkswagen T4 modelo, multivan salgai. 251.000 km. Egoera onean. Kanbio automatikoa. 102 zaldi. 12.500 euro. 609481124

# Horoskopoa

Urriaren 19tik azaroaren 2ra arteko aurreikuspena



## aries

**Martxoak 21-Apirilak 21**  
Erronkez beteriko egunak; oztipoen aurrean jarrera egokia azaltzen ez baduzu babes bat baino gehiago gaitzeko arriskuan egongo zara. Teknologia hobeto ezagutuko duzu eta horrek zure egunerokotasunean lagunduko dizu.



## taurus

**Apirilak 22-Maiatzak 21**  
Ilusioz gainezka zaude, hori positiboa dela jakin badakizu baina hala ere, badaezpada zure apustua karta bakarrera ez ezazu jokatu. Aurrezteak ez da gauza berria zuretzat baina oraingoan serioago ekin beharko diozu lan honi.



## gemini

**Maiatzak 22-Ekainak 21**  
Zure ideiek inguruko oniritzia izango dute eta horrek ospeak gora egitea eragingo du. Lan elkarrizketek fruitu onak ekarriko dituzte. Zortea zure alde egongo da, baita loteria eta tankerako jokoa ere.



## cancer

**Ekainak 22-Uztailak 22**  
Ez zaude zure momenturik onenean. Hala ere, gertukoak laguntzeko prestutasunak ez dizu alde egingo. Bikotearekin nahi beste egoteko aukerarik ez duzu izango. Familia giroan konpondu gabeko arazoak daude.



## leo

**Uztailak 23-Abuztuak 22**  
Egun zailak datoz, etsaiei aurre egiteko egunak dira ondorengoak. Onena gainera, inolako zauririk ez jasotzeko, aurrea hartzea izaten da. Beharrezkoa da gauzak zentzuz egitea, aurrerantzean bidelagun izango dituzunekin, batik bat.



## virgo

**Abuztuak 23-Irailak 22**  
Betiko kezka profesionalarekin jarraituko duzu, beste batentzat lan egiteak muga gehiegi sortzen dizkizu. Lan harremanetan giroa nahasia egongo da, hitzarmenak adostea nahitaezkoa izango da.



## libra

**Irailak 23-Urriak 22**  
Arazo bat konponduko da eta horrek pisua arinduko dizu. Bizitza errealitate berrira egokitu beharko duzu. Fase berri batean murgilduko zara, ez zara dagoeneko zain egongo baina hala ere, zenbait aldaketek bere zailtasunak ere ekarriko dituzte.



## scorpius

**Urriak 23-Azaroak 22**  
Egun zailak dira ondorengoak; arlo pertsonalari dagokionean, familia giroan arazoren bat sortuko da, konponketarako giltza zure esku egongo da, gainera. Maite duzun jendearekin gatazkan aritzea ez da samurra izaten.



## sagittarius

**Azaroak 23-Abenduak 21**  
Kezka eta arduren egunak dira ondorengoak; askatasunez aritzeko aukerarik ez duzu izango, albiste arduragarriak iritsiko dira... Hala ere, baikortasun naturalari heldu eta egoerari aurre egitea baino ez dagokizu.



## capricornius

**Abenduak 22-Urtarrilak 20**  
Zure kezkek oinarria dutela ezin zalantzan jarri, baina zeinu positiboak ere erparatu beharra dagoela ez ezazu ahaztu. Gastuek gora egingo dute eta diru-sarrera ordea ez da nahi bezain altua izango. Zure kontura lan eginez gero etxeko ekonomia bultzada jasan dezake.



## aquarius

**Urtarrilak 21-Otsailak 20**  
Datozen asteotan zenbait kapitulu itxi beharko dituzu; era egokian lotuz gero diru-sarrera gehigarria jasotzeko aukera izango duzu. Giza harremanek zeresan handia izango dute datozen hilabeteotan, negozio kontuetan gehien bat.



## piscis

**Otsailak 21-Martxoak 20**  
Garai zailak datoz; zure arazoei aurre egiteaz gain, familia eta adiskidetasun kontuei ere erreparatu beharko diezu. Denbora tarte garrantzitsua besteei laguntza eskaintzen emango duzu, horrek tentsioa ere sortu du.



Komikia: Joseba Antxustegietxarte



**GOITIK**

- Web orriak • Publizitate kanpainak • Logotipoak • Irudi korporatiboa
- Liburuak • Aldizkariak • Rotulazioa • Ilustrazioak • Multimedia

**Ikuspegi zabala bezeroaren eskura**

Jar zaitzez gurekin harremanetan:  
943 67 08 19  
goitik@goitik.com  
www.goitik.com

Lurre 20-21 behea - 20400 Tolosa - Gipuzkoa



V. IBARRA

# GALTZAKOMIK

KOMIKI LEHIAKETA 2012



## SARIAK

18 URTETIK GORA:

12 URTETIK 18 URTERA  
BITARTEAN:

12 URTETIK BEHERA:

**Lehenengoa:**

600 € eta argitalpena

**Bigarrena:**

400 €

**Aipamena:**

marrazketarako materiala  
+ komiki bilduma bat

**Lehenengoa:**

400 €

**Bigarrena:**

200 €

**2 Aipamen:**

komiki bilduma bana

**Lehenengoa:**

komiki bilduma bat eta  
marrazketarako materiala

**4 Aipamen:**

komiki bilduma bana

PARTE HARTZAILEEN ARTEAN MAHALA BASERRIKO PRODUKTUEN 4 SASKI ZOKKETATUKO DIRA.

Oinarriak eta informazioa:

<http://galtzakomik.blogspot.com.es/>

[www.galtzaundi.com](http://www.galtzaundi.com)

[kultura@galtzaundi.com](mailto:kultura@galtzaundi.com)

943 655 004

Antolatzailea



Laguntzailea



Babesleak

